



**4/2019 TXOSTENA, OTSAILAREN 27KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN ETA
HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO
ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN (HABE)
KONTRATAZIO-MAHAIK SORTZEKO 2017KO
UZTAILAREN 28AN EMANDAKO AGINDUA ALDATZEKO
AGINDUA.**

I.- AURREKARIAK.

2019ko urtarrilaren 29an, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak txosten bat eskatu zuen Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu-proiektu bati buruz. Agindu horren xedea da 2017ko uztailaren 28ko Agindua aldatzea; hain zuzen, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunaren (HABE) kontratazio-mahaiak sortzekoa dena.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zitzaion, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen presidentea baita.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_ORD_16/19_10), honako agiri hauek agertzen dira:

- Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Agindua, hasiera ematen diona 2017ko uztailaren 28ko Agindua aldatzeko agindu-proiektua egiteko prozedurari, bi sailburuok 2017 uztailaren 28an emandako agindu horren bidez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakunde Atonomiadunaren (HABE) kontratazio-mahaiak sortzen baitziren.
- Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Agindua, agindu-proiektua alde aurretik onartzekoa (eranskin gisa dago atxikita).
- Agindu-proiektuaren memoria, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak sinatua.
- Agindu-proiektuari buruzko memoria ekonomikoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak sinatua.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten honi buruz nahitaez informatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, behin betiko izendatutako kontratazio-mahaia edo kontratu anitzetarako eginkizunetako mahaia aldatzeko agindu-proposamen bat da.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak –horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bere 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Aipatu legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorrita, 326. artikulua hori ez da oinarritzeko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluek kontratazio-mahaien erregulazio berri eta oso bat xedatzen dute. Lehenak kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta kideen izendapena ere; bigarrenak, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

8. artikulua oro har xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitatedunetan kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea; halaber, kontratazio-organoi egokituko zaio kontratazio-mahaiko kideak izendatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, hura Bulegoaren titularrak aukeratuko baitu.

Artikulu beraren 2. apartatuan, kontratazio-organoi laguntza emateko organoen osaera-arauak finkatzen dira, eta ezartzen da presidente batek, idazkari batek eta gutxienez hiru kidek osatuko dituztela kontratazio-mahaiak. Eta, horrez gain, ezartzen da kideen artean honako hauek egon beharko dutela nahitaez: kontratazio-organoi aholkularitza juridikoa emateko betebeharra duen kide bat eta aholkularitza teknikoa emateko betebeharra duen beste bat, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoren ekonomia eta aurrekontuak kontrolatzeko zeregina esleituta duen pertsona bat. Kontratua ondasun eta zerbitzu informatikoei eta telematikoei buruzkoa baldin bada, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-organoiak eskatuz gero, aipatutako kideez gain, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat ere izango da kontratazio-mahaian.

Kontratazio-mahaiko kideak izendatzeari dagokionez, aipatutako 8. artikuluko 3. apartatuaren arabera, behin betiko izenda daitezke, edo berriaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten denez, Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Halaber, beste baldintza bat gehitzen du: nola osatu den eta kideak nor diren adieraziko da kontratuaren administrazio-klausula zehatzen pleguan, eta kasuan kasuko kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuak egiteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela kalifikatu baino hamar egun baino lehen.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK ERATZEA.

Eusko Jaurlaritzaren sailen berregituraketak, zeina Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez egin baita, eraketa berri bat eman dio sail bakoitzak esleituta duen jardun-eremuari. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkion funtzioak eta jardun-eremuak, zehazki, dekretu horren 14. artikuluan adierazten dira, eta sail horri atxikitzen zaio Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, Dekretua indarrean sartu eta 6 hileko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek, baldin eta administrazio publikotzat hartzen badira, dekretu horren 8. artikuluan xedatutakora egokituko dute kontratazio-mahaien egitura.

Horretarako, bi kontratazio-mahai sortu ziren; alde batetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko kontratazio-organoei laguntzekoa, eta, bestetik, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundeko (HABE) kontratazio-organoari laguntzeko funtzioak dituen.

Bi kasuetan gai anitzetarako funtzioak esleitzen zaizkie; horrenbestez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, «... kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da...» kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organoen egitura hori.

Aurrekoarekin bat etorriz, 2017ko uztailaren 28ko Agindua onartu zen, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kultura

eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) erakunde autonomiadunaren kontratazio-mahaiak sortzeko dena. Agindu hori 2017ko abuztuaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (150. zenbakia) argitaratu zen.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txosten honi dagokion agindu-proiektuaren bitartez, 2017ko uztailaren 28ko Agindua aldatu nahi da, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak emandakoa Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea –HABE– erakunde autonomiadunaren kontratazio-mahaiak sortzeko. Aldaketa Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko kontratazio-mahaiaren osaerari dago lotuta; hain zuzen, aipatutako aginduaren 1. artikuluko 2.a) letran xedatutakoari, aldaketa-aginduaren azalpen-zatian adierazitakoaren arabera: «*Aholkularitza Juridikoak modu efikaz eta eraginkorragoan bete ditzan bere funtzioak*».

Onartu nahi den aldaketaren ondorioz, Aurrekontuen Kudeaketa Ekonomiko Arloaren arduradunaren ordeztuz, «*Zuzenbideko Lizentzia edo Gradua duen eta Zerbitzu Zuzendaritzara atxikia dagoen teknikari bat*» arituko da, hala badagokio, kontratazio-mahaiko presidentetzako kide gisa.

Agindu-proiektuak arau-lerruna eta organo eskudunak errespetatzen ditu, kontratazio-mahaiko kideak behin betiko edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunekin izendatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua eskatzen duenaren arabera.

Azalpen-zatian bosgarren paragrafoa zuzendu beharko litzateke, honako hau sartzeko testuaren amaieran: «*[...], aipatu 82/2017 Dekretuaren 5.4 artikuluan xedatutakoaren arabera*»; eta, hala, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren artikulua horren erreferentzia txertatuko da, zeinetan sailburuak kasu batzuetan kontratazio-organoa gisa duen ahalmena jasotzen baita, bosgarren paragrafo horren hasieran 3.2.h) artikulua aipatuta egin den bezala, artikulua horretan zehazten baita sailburuordeek kontratazio-organoa gisa jarduteko duten ahalmena.

Era berean, uste dugu seigarren paragrafoko lehen tartekiaren lehen zatiaren idazkera zuzendu beharko litzatekeela, honela gera dadin: «*Bestalde, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 8.3.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Aholkularitza Juridikoari egokituko zaio [...]»;* hartara, haren funtzioei dagokien artikulua aipatzeko.

Agindu-proiektuaren artikulua bakarreko lehen paragrafoan, uste dugu, «*[...] Kultura eta Hizkuntza Politika [...]» jarri ordez, «[...] Kultura eta Hizkuntza Politika Saila [...]» jarri beharko lukeela.*

Azaldutako guztiagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu-proiektuari, zeinak aldatu egiten baitu 2017ko uztailaren 28ko Agindua, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea –HABE– erakunde autonomiadunaren kontratazio-mahaiak sortzeko dena; betiere, aurrez txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokituta agindu-proiektuaren edukia.